

### DBH 3 ElkarMaker : maketen aurkezpena




Abenduaren 9an ElkarMaker proiektuaren barruan, gure lana aurkeztu genien gure ikastolako LH 3. maila eta Arrasatetik etorritako diseinu injenieritzako bigarren mailako ikasleei. Egindako maketak LH3. mailako geletatik jasotako bi ideietatik abiatuz sotu eta eraikitakoak dira .


Aurtengo proposamenak :

– Pertxero magikoa

– Munduko robota

Hemen dituzue aukeratutako ideia eta dagokion maketa







DBH 3. mailakoek egindako maketa guztiak ikusi nahi izanez gero klikatu

<https://photos.app.goo.gl/asKkquyY4VjuRjVA8>

Irailean hasi eta abendura bitarte LH 3.mailakoen idei hauen maketak eraiki ditugu DBH3n teknologia arloan, guztira 8 maketa egin ditugu eta Arrasateko ikasleek horietatik bi prototipo bihurtuko dituzte, orain, Arrasateko injeneritzako ikasleen txanda izango da eta gu haien zain geratuko gara! Maiatzean beraiek izango dira Arrasateetik etorri eta aurkezpenak egingo dizkigutenak. Animo et aurrera!!

### **MUSIKARIAK IKASTETXEAN**

Aurreko ostiralean, abneduaren 13an , Jon Basaguren eta Paxkal Irigoien izan ziren DBH 4 eta DBH 1 mailan. Beraien musika ezagutzeaz gain, beraiekin abestu, dantzatu eta inprobisatu ere egin genuen. Primeran pasa genuen!!!



Lotura honetan argazki gehiago ikusteko aukera duzue:  
<https://photos.app.goo.gl/ejDPpd7GdGPPCm3t6>

## **ZINEMA EUSKARAZ TINKO ELKARTEAREN ESKUTIK**

Abenduaren 18an gure ikastolako DBH 1., 2. eta 4. mailako ikasleekin zinemara joan ginen, bertan Loreak eta Gazte harrigarria filmak ikusi genituen, gero gelan ikusitakoaren inguruko hausnarketa egin dugu. Loreak ikusi dutenekin istripu eta

heriotzaren inguruko hausnarketa eta Gazte harrigarriak filma ikusi dutenekin aldiz egoera ezberdinetan bizi ditugun emozioen inguruan hitz egiteko aukera izan dugu.. Zinema euskaraz ikusteko aukera Tinko elkarteak eskaintzen digu.

Tinko Euskara Elkarteak euskara zinema aretoetan sarrarazi eta gure hizkuntzaren normalkuntza sustatzeko helburua duen elkartea da.

1993az geroztik, "Euskara zine aretoetara" lemapean Euskal Herriko ikastetxe orori esfera internazionalerako hainbat film euskaraz ikusi eta hauek material didaktikoen bitartez lantzeko aukera eskaintzen digu Tinkok.

